

**MERKATARITZA, KONTSUMO  
ETA TURISMO SAILA**

AGINDUA, 1994ko martxoaren 23koa, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuarena, merkataritzagaiak banatze alorrean inbertsioak egiteko laguntzetarako programa arautzen duen martxoaren 22ko 145/1994 Dekretua garatzeko dena. 4978

**Iragarpenak****Beste Iragarpen Ofizial Batzuk****GARRAIO  
ETA HERRILAN SAILA**

IRAGARPENA, Bermeoko portuan lokal bat okupatzea legezkontzeko administrazio kontzesioa emateko eskabideari buruzkoa. 4981

IRAGARPENA, Bermeoko portuan lurzati baten administrazio emakida eskuratzeko eskabideari buruzkoa. 4981

**Xeñapen Orokorrak****HERRIZAINGO SAILA****1445**

AGINDUA, 1994ko apirilaren 14koa, Herrizaingo sailburuarena, 1988ko otsailaren 19ko Aginduz onartu eta 1989ko abenduaren 22ko Aginduz aldatutako bingo jokoaren araudiko zenbait alderdi osatzeko dena.

Indarrean dagoen Autonomi Estatutoaren 10.35 atalean xedatutakoaren arabera Euskal Autonomi Elkarrekin joko eta apostu arloan dituen aginpide oso-osez baliatuz eman zen Bingo Jokoaren Araudia. 1988ko otsailaren 19ko Aginduz. Agindu hori gerora 1989ko abenduaren 22koak aldatu zuen zati batean.

Jokoa arautzeko 1991ko azaroaren 8ko Legeak jokoa egitura ekonomikoaren zati legez hartzen du, hots, baimendutako jokoen praktika egokia eta, merkatal ikuspegi zehatzetik, baliabideen eta etekinen onena bermatzeko besteko oinarri tekniko eta profesionaleko enpresek eraturako arlo ekonomikoko zati bezala. Guzti hori aipatu legeak ezartzen duen plangintza ereduaren barruan.

Hori dela eta, jokoa ezarri zenetik igarotako denbora ikusita, eta finkatutako joko eredia onartu eta oinarri-

**DEPARTAMENTO DE COMERCIO, CONSUMO  
Y TURISMO**

ORDEN de 23 de marzo de 1994, de la Consejera del Departamento de Comercio, Consumo y Turismo, por la que se desarrolla el Decreto 145/1994 de 22 de marzo por el que se regula el programa de Apoyo a la Inversión en el sector de Distribución Comercial. 4978

**Anuncios****Otros Anuncios Oficiales****DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES  
Y OBRAS PUBLICAS**

ANUNCIO relativo a la solicitud de otorgamiento en concesión administrativa para la legalización de ocupación de un local en el puerto de Bermeo. 4981

ANUNCIO relativo a la solicitud de otorgamiento en concesión administrativa de una parcela de terreno en el puerto de Bermeo. 4981

**Disposiciones Generales****DEPARTAMENTO DE INTERIOR****1445**

ORDEN de 14 de abril de 1994, del Consejero de Interior, por la que se complementan determinados aspectos del reglamento del juego del bingo aprobado por Orden de 19 de febrero de 1988 y modificado por la de 22 de diciembre de 1989.

En ejercicio de la competencia exclusiva que, en materia de juego y apuestas, ostenta la Comunidad Autónoma del País Vasco de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 10.35 del vigente Estatuto de Autonomía, se dictó el Reglamento del Juego del Bingo, aprobado por Orden de 19 de febrero de 1988, reformado parcialmente por la Orden de 22 de diciembre de 1989.

La Ley Reguladora del Juego de 8 de noviembre de 1991, diseñó el juego como un sector económico, constituido por empresas dotadas de una solvencia técnica y profesional suficiente en orden a llevar a buen término la práctica de los juegos autorizados y a optimizar sus recursos y beneficios, desde el específico punto de vista mercantil en este último caso, todo ello dentro del modelo de planificación estatuido en la referida Ley.

Por ello, después del tiempo transcurrido desde la implantación del juego y considerando las circunstan-

tu dela adierazten duen gizarte mailako egungo egoera kontuan hartuz, beharrezkoa da bingo jokoa egokitzea; horrela, Agindu honen bidez elkarlotutako bingo metatua bingo joko mota berria sortzen da, atzerakada jasan duen arlo honetako enpresariei irteera bat eskaini nahian. Joko mota horretan bingo areto guztiak informatika bidez lotzen dira, ondorioz, areto guztietan metatutako saria eskuratzeko aukera eskainiz. Gainera, jokorako arauen argitasun eta gardentasunean dago oinarrituta, jokalarien eskubideak babesteko eta lortutako sariak eskuratuko direla bermatzeko arauak emanez.

Horiek horrela, Euskal Joko Batzordeak txostena egin ondoren eta izendatu zaizkidan aginpideen arabera, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### 1. atala.-

1.- Agindu honen bidez elkarlotutako bingo metatua ezartzen da, bingo mota berri legez.

2.- Elkarlotutako bingo metatua, Agindu honetan zehaztutako baldintzen arabera, bingo arrunteko jokolari irabazleak eskura dezakeen sari gehigarria da, eta ateratako bola kopuruak baimendutako gehieneko kopurua gainditzen ez duenean lortuko da.

##### 2. atala.-

1.- Elkarlotutako bingo metatuko saria jokaturako kartoen diru-zenbatekoa Agindu honek ezartzen duen eran metatzerik ateratzen dena izango da, eta xedapen honetan zehaztutako baldintzak bete ditzaten bingo aretoetako titular guztiak ezarri ahal izango dute bingo metatua.

2.- Elkarlotutako bingo metatuko sariaren zenbatekoa sistema honetara atxikitako bingo aretoetan jokaturako kartoen joko-balioaren ehuneko 1,50 metatzerik ateratzen dena izango da, eta jokaldi bakoitzean bingo arrunterako portzentaitik aterako da, gehienez 30 milioi pezeta bildu arte metatzen delarik.

3.- Horrez gain, jokaturako kartoen joko-balioaren ehuneko 0,50 elkarlotutako bingo metatuaren erreserbarako erabiliko da, aurreko idatzian ezarritako mugara arte, eta mugako kopuru hori ehuneko 5ean baino ezingo da gairiditu. Elkarlotutako bingo metatua emanaz gero, hasierako kopurua elkarlotutako bingo erreserban dagoena izango da, baina kopuru horri aurretik ehuneko 25 kendu ondoren, ehuneko hori hasierako erreserba berria izango baita.

4.- Elkarlotutako bingo metaturako aurrikusitako gehieneko kopurua lortzen bada, ez da inolako kopururik gordeko azken horretarako, eta kartoen joko-balioaren ehuneko 2 elkarlotutako bingo metatuaren erreserban gordeko da, atal honetako 2. idatzian aipatzen den kopurua bildu arte; une horretatik aurrera ez

cias sociales actuales que denotan la consolidación y aceptación del modelo de juego establecido, se hace preciso adaptar el juego del bingo, creándose por la presente Orden, como una modalidad de juego del bingo, el bingo acumulado interconectado que pretende la pervivencia digna de las empresas del sector, con claros signos de recesión. Esta modalidad de juego está basado en la interconexión mediante un sistema informático de las Salas de Bingo que posibilita la obtención de un premio acumulado entre todas ellas y, asimismo, se fundamenta en la absoluta claridad y transparencia de las reglas del mismo, habiéndose previsto normas que salvaguardan los derechos de los usuarios del juego y que establecen la garantía de cobro de los premios obtenidos.

En su virtud, habiendo emitido informe el Consejo Vasco de Juego, de acuerdo con las competencias que me están conferidas,

#### DISPONGO:

##### Artículo 1.-

1.- Por la presente Orden se establece como modalidad del juego del bingo, el bingo acumulado interconectado.

2.- El bingo acumulado interconectado, de acuerdo con los requisitos especificados en la presente Orden, consiste en un premio a obtener por parte del jugador que resulte premiado con el bingo ordinario, a modo de premio adicional, siempre que el número de bolas extraídas hasta la consecución de dicho premio no supere el número de bola máximo autorizado.

##### Artículo 2.-

1.- El premio del bingo acumulado interconectado será el que resulte de la acumulación del importe de los cartones jugados, en la forma que se determina en la presente Orden, y a su implantación podrán optar todos los titulares de salas de bingo que cumplan los requisitos especificados en esta disposición.

2.- La cuantía del premio del bingo acumulado interconectado será el que resulte de acumular el 1,50 por ciento del valor facial de los cartones jugados en las salas de bingo adheridas a este sistema, y el mismo se detraerá en cada partida del porcentaje destinado a bingo ordinario, acumulándose hasta el importe máximo de 30 millones de pesetas.

3.- Asimismo, un 0,50 por ciento del valor facial de los cartones jugados se destinará a la reserva del bingo acumulado interconectado hasta alcanzar, en su caso, el límite establecido en el apartado anterior, con un margen nunca superior al 5 por ciento sobre dicha cantidad. Una vez concedido el bingo acumulado interconectado, la cantidad inicial será la existente en la reserva del bingo acumulado interconectado, previa deducción del 25 por ciento de la misma, que constituirá la cantidad inicial de la nueva reserva.

4.- Si se alcanzara el máximo de la cifra prevista para el bingo acumulado interconectado no se destinará cantidad alguna a este concepto, acumulándose el 2 por ciento del valor facial de los cartones en la reserva del bingo acumulado interconectado hasta la constitución de la cantidad a que se refiere el apartado 2 de este artí-

da inolako portzentairik gordeko, eta zenbateko hori oso-osoan erabiliko da bingo arrunterako.

5.- Elkarlotutako bingo metatua lortzeko aukera ematen duen bola ateratzen den hogeita hamaseigarrena izango da, gehienez.

### 3. atala.-

1.- Elkarlotutako bingo metatua ezartzeko baimendutako bingo aretoetako titularrek monitore edo panelak jarriko dituzte joko aretoetan, edozein tokitatik ikusteko moduan, eta bertan elkarlotutako bingo metatuaren zenbatekoa, erreserba eta bingoa atera ahal izateko baimendutako gehienezko bola kopurua adierazi beharko dira.

2.- Saio bakoitzeko jokaldi guztien hasieran, Mahai-Buruak, aretoko megafoniatik, aurreko zenbakiko informazioa iragarriko die jokalariei.

3.- Jokalariren batek elkarlotutako bingo metatua kantatzen duenean, 1988ko otsailaren 19ko Aginduan bingo arrunterako aurrikusitako era berean egiaztatuko da. Arestian adierazitakoaz gain, Areto-Buruak unean bertan eta aretoko jokalarien aurrean egiaztatuko du ateratako bolak eta bolak ateratzeko makinako hodi-bihurrian daudenak bat datozela. Egiaztapena egin eta gero, Areto-Buruak eta Mahai-Buruak sinatutako akta luzatuko da zehaztasun guzti horiek emanez.

### 4. atala.-

Elkarlotutako bingo metaturako honako azpiegitura tekniko hau beharko da:

1.- Bingo areto bakoitzean:

a) kartoen serie osoa jaso dezan tresna informatikoa.

b) aretoko edozein tokitatik ikusteko moduko panel edo monitore bidezko sistema ikusgarria, gutxienez honako informazio hau jasoz:

- saldutako kartoen kopurua.

- saria jaso duten kartoiak, horien eredia, egiaztatzen ari diren bitartean.

2.- Informatikako Unitate Nagusia; bingo aretoak bertara lotuta egongo dira eta sistema horretara atxikitako aretoetan saio guztian zehar saldutako kartoen joko-balioa eta, ematen direnean, emandako sariak, Unitate horretara bidaliko dira saio bakoitza bukatu ondoren eta hurrengo hasi aurretik. Datu horiek jaso eta prozesatu ondoren bingo areto bakoitzera itzuliko dira, horrela, elkarlotutako bingo metatuaren zenbatekoa eta hurrengo saiorako hasierako erreserba finkatuta geldituko direlarik. Informazio hori eskuragarri izango du une oro Administrazioak.

Aipatu informazioa areto bakoitzetik Unitate Nagusia bidaliko dela berrmatuko da, eta hori ezinbesteko baldintza izango da Agindu honetan araututako jokatzeke eran parte hartzeko. Informazioa bidaltzea ezinezkoa bada, hurrengo saioari hasiera eman aurretik horren berri emango zaio Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari. Era berean, eragindako aretoan jokatzeke era horri ekin

culo, a partir de cuyo momento no se detraerá porcentaje alguno, destinándose el mismo íntegramente al bingo ordinario.

5.- La bola máxima extraída que posibilita la obtención del bingo acumulado interconectado es la trigésimosexta.

### Artículo 3.-

1.- Los titulares de salas de bingo autorizados para la implantación del bingo acumulado interconectado dispondrán de monitores o paneles visibles desde cualquier punto de la sala de juego donde conste la cuantía del bingo acumulado interconectado, su reserva y la bola máxima autorizada para su obtención.

2.- Al inicio de la primera partida de cada sesión, el Jefe de Mesa anunciará a los usuarios del juego, a través de la megafonía de la sala, la información a que se refiere el número anterior.

3.- Cuando algún jugador cante el premio del bingo acumulado interconectado, se procederá, en cuanto a la comprobación del mismo, del modo previsto para el bingo ordinario en la Orden de 19 de febrero de 1988. Además de lo señalado anteriormente, el Jefe de Sala comprobará en el momento y en presencia de los jugadores de la sala que las bolas extraídas coinciden con las del serpentín de la máquina extractora de bolas. Una vez realizada la comprobación se extenderá acta suscrita por el Jefe de Sala y el Jefe de Mesa en la que se reflejarán estos extremos.

### Artículo 4.-

La modalidad de bingo acumulado interconectado precisará de la siguiente infraestructura técnica:

1.- En cada sala de bingo:

a) Un soporte informático que acumule la serie completa de los cartones.

b) Un sistema de visualización mediante paneles o monitores visibles desde cualquier punto de la sala, conteniendo al menos la siguiente información:

- El número de cartones vendidos.

- Los cartones, en forma de matriz, que hayan resultado premiados, durante la comprobación de los mismos.

2.- Una Unidad Central Informática a la que estarán conectadas las salas de bingo y a la que se remitirá, al final de cada sesión y antes del comienzo de la siguiente, el importe del valor facial de los cartones vendidos durante toda la sesión en las salas adheridas al sistema, así como, en su caso, los premios concedidos. Una vez recibidos y procesados estos datos se remitirán a cada sala de bingo quedando, de este modo, determinado el importe del bingo acumulado interconectado y su reserva para el inicio de la jornada siguiente. Dicha información será accesible en cualquier momento a requerimiento de la Administración.

Se garantizará, en todo caso, la transferencia de la información citada desde cada sala a dicha Unidad Central, siendo esta circunstancia condición indispensable para la participación en la modalidad de juego regulada por la presente Orden. En caso de imposibilidad de transferencia de la información y antes del comienzo de la siguiente sesión se comunicará dicha circunstancia a

zaiola ere jakinarazi beharko da.

3.- Informatikako Unitate Nagusia elkarlotutako edozein bingo aretotan egon daiteke kokatuta, eta berdin bat egon beharko da edozein arrazoiengatik Unitatea zerbitzutik kanpo geratuz gero, bere ordezko lana egin dezan.

4.- Informatikako Unitate Nagusia eta bingo aretoetan dagoen informatikazko gainontzeko materiala Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baliokidetu eta behar bezala prezintatu beharko du, inork ez manipulatzeko.

#### 5. atala.-

1.- Elkarlotutako bingo metatuaren eta horren erreserbaren zenbatekoa ez da aldatuko saio bakoitzean zehar sistemara atxikitako bingo areto guztietan, eta aurreko ataleko 2 zenbakian ezarritako eran metatuko da.

2.- Saio berean kantatzen diren elkarlotutako bingo guztiak horien irabazleen artean banatuko dira. Saria lortu eta hurrengo berrogeita zortzi orduen barruan entregatuko zaie, irabazleak nortzu izan diren egiaztatu ondoren.

3.- Saria Agindu honen 3. ataleko 3. zenbakian ezarritakoarekin bat etorriz egiaztatu eta gero, saioaren data, jokaldiaren zenbakia eta, elkarlotutako bingo metatuaren arabera, saioko irabazleei dagokien saria adierazten duen egiaztagiria emango zaio irabazleari. Datu horiek derrigorrez jasoko dira Akten Liburuan, baita sariaren irabazlearen edo irabazleen nortasunaren zehaztasun guztiak ere, nortasun agiri nazionalaren eta pasaportearen zenbakia, eta izenpea barne.

4.- Elkarlotutako bingo metatuaren saria taloi edo bankuko txeke bidez ordainduko da; aretoaren titularra den Bingo Enpresak ordainduko du, izenduna izango da eta saria lortzen duen norbanakoaren edo norbanakoen aldekoa.

#### 6. atala.-

Agindu honen bidez arautzen den jokatzeko erara atxikitako bingo aretoetako titular guztiek, solidarioki, hogeita hamar milioi pezetako fidantza izenpetu beharko dute, elkarlotutako bingo metatuko saria ordainduko dela bermatzeko, eta edozein aretok ordaintzen ez badu, ezin izango da bingo mota hau jokatu kopurua berriz oso-osorik jartzen ez den bitartean, atal honetan jasotako baldintzetan. Fidantza eperik gabe kontsignatuko da banketxe, aurrezki-kutxa, erakunde kreditu-emale orokor edo indarrean dauden arauetan onartutako merkataritzako beste Erakunde batzuetan, eta ezin izango da jaso Administrazio eskudunaren baimenik gabe.

la Dirección de Juego y Espectáculos. Igualmente se comunicará la reanudación de esta modalidad en la sala afectada.

3.- La Unidad Central Informática podrá estar situada en cualquiera de las salas de bingo interconectadas, debiendo existir una réplica de la misma prevista para entrar en funcionamiento en caso de que aquella quede fuera de servicio por cualquier causa.

4.- La Unidad Central Informática y demás material informático existente en las salas de bingo, deberá ser homologado por la Dirección de Juego y Espectáculos y debidamente precintado de modo que se impida su manipulación.

#### Artículo 5.-

1.- La cuantía del bingo acumulado interconectado y su reserva permanecerá invariable durante cada sesión en todas las salas de bingo adheridas al sistema, procediéndose su acumulación del modo establecido en el número 2 del artículo anterior.

2.- Todos los bingos acumulados interconectados que se canten en la misma sesión deberán ser repartidos entre los ganadores de los mismos. El premio deberá ser entregado dentro de las cuarenta y ocho horas siguientes a la obtención del mismo, una vez comprobados los ganadores.

3.- Una vez verificado el premio conforme lo dispuesto en el número 3 del artículo 3.º de la presente Orden, se entregará al ganador o ganadores un justificante en el que se detalle la fecha de la sesión, el número de la partida y el premio a recibir a resultados del número de ganadores en la sesión, según la cuantía del bingo acumulado interconectado. Estos datos necesariamente se harán constar en el Libro de Actas, así como la identidad completa, número de documento nacional de identidad o pasaporte y firma del ganador o ganadores del citado premio.

4.- El premio del bingo acumulado interconectado se pagará mediante talón o cheque bancario que deberá librar la Empresa de Bingo titular de la Sala, nominativamente a favor de la persona o personas que obtuvieron el premio.

#### Artículo 6.-

Todos los titulares de Salas de Bingos acogidos a la modalidad de juego regulada en el presente Orden deberán suscribir solidariamente una fianza por importe de treinta millones de pesetas que estará afecta al pago del premio resultante del bingo acumulado interconectado, y podrá ser ejecutado en caso de impago de cualquiera de las salas, para su posterior entrega a los que hubieren obtenido el premio. Si se procede a su ejecución no podrá practicarse esta modalidad de bingo hasta que se reponga íntegramente su importe en las condiciones a que se refiere el presente artículo. La fianza se consignará con carácter indefinido a través de Bancos, Cajas de Ahorro, Entidades de Crédito en general u otras Entidades mercantiles admitidas por la normativa vigente, y la misma no podrá ser retirada hasta que la Administración competente lo autorice.

## AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Elkarlotutako bingo metatua izeneko bingo mota ezarri ahal izareko beharrezkoa izango da Euskal Autonomi Elkartearen kokatutako bingo aretoen gutxienez ehuneko 70ak, edo aretoetako aforoa portzentai horretakoa hartzen duten areto kopuruak izatea hori ezartzeko baimena.

*Bigarrena.*— 1.— Agindu honen bidez arautzen den bingo motara atxiki nahi diren bingo enpresek Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari eskatu beharko diote Agindu hau indarrean sar dadin egunetik hasi eta bi hilabeteko epearen barruan. Eskeidazkia indarrean dagoen Herri-Administrazioen Lege Jaurbideari eta guztientzako ihardurbideari buruzko Legearen 70. atalean aurrikusitako baldintzetan aurkeztuko da, eta areto bakoitzean jarriko den informatikazko sistemari buruzko txostena eta Informatikako Unitate Nagusia eta horren kokapenari buruzko beste txosten bat ere aurkeztu beharko dira eskeidazkiarekin batera, arau honetako ataletan xedatutakoarekin batera. Horiez gain, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimenaren inguruko erabakia hartzeko beharrezko agiri osagarriak eska diezaizkie interesatuei.

2.— Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, aurkeztutako agiri-sorta aztertu ondoren erabakiko du, arrazoiak emanez, baimena ematen duen ala ez.

3.— Aurreko zenbakian jasotakoarekin bat etorritik baimendutako bingo enpresek Agindu honen 6. atalean aipatutako fidantza eratu beharko dute, erabaki egunetik hasi eta hilabeteko epean.

*Hirugarrena.*— 1.— Baimendutako bingo areto bakoitzak gutxienez urtebetez ihardungo du sistemaren barruan, sisteman hasten denetik kontatzen hasita, aretoa behin-betiko ixten denean salbu.

2.— Sistemara atxikitako bingo areto baten titularitateak aldatzeak, titular berria eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatzea dakar.

3.— Xedapen honen lehenengo idazatian oharreman-dakoarekin bat etorritik, eta edozein arrazoiengatik, sistema utzi edo uko egiten dioten bingo aretoek, edo Agindu honen Azken Xedapenetatik Bigarrenean jasotako epean sistemara sartzea eskatzen ez dutenek ezingo dute eskatu elkarlotutako bingo metatu sistemara sartzea, ezinezko egiten zuen egoera gertatu eta gutxienez urtebete igaro arte.

*Laugarrena.*— Jokatzeko era honetan ekiteko orduan, elkarlotutako bingo metatuaren hasierako kopurua atxikitako bingo aretoetan une horretan dauden bingo metatuen batukera egitetik ateratzen dena izango da. Elkarlotutako bingo metaturako jarritako muga gainditzen badu, gaineko kopuru hori haren erreserbarako utziko da. Atxikitako bingo aretoek batera jakinaraziko diote Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari elkarlotutako bingo metatua eta aurreko puntuan ezarritako arautik ateratzen den erreserba.

*Bosgarrena.*— Elkarlotutako bingo metatuko sistemara atxikitako bingo areto bat edozein arrazoiengatik

## DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— Para la implantación de la modalidad de bingo denominada bingo acumulado interconectado será preciso que obtengan autorización para su implantación al menos el 70 por ciento de las salas de bingo radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco o un número de ellas que contemplen el aforo de las salas en dicho porcentaje.

*Segunda.*— 1.— Las Empresas de Bingo que deseen optar a la modalidad de bingo regulada en la presente Orden deberán solicitarlo a la Dirección de Juego y Espectáculos en el plazo de dos meses desde la entrada en vigor de la presente Orden. La instancia se suscribirá de acuerdo con los requisitos previstos en el artículo 70 de la vigente Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, debiendo adjuntarse dossier comprensivo del sistema informático a implantar en cada sala y otro relativo a la Unidad Central Informática y su ubicación, conforme los artículos de la presente norma. Además de lo anterior, la Dirección de Juego y Espectáculos podrá requerir de los interesados la documentación complementaria necesaria para la resolución de la autorización.

2.— La Dirección de Juego y Espectáculos a la vista de la documentación presentada resolverá motivadamente sobre la autorización.

3.— Las Empresas de Bingo autorizadas de acuerdo con lo dispuesto en el número anterior, deberán formalizar la fianza a que se refiere el artículo 6 de la presente Orden, en el plazo de un mes desde la fecha de la resolución.

*Tercera.*— 1.— La permanencia mínima en este sistema por parte de cada sala de bingo autorizada será de un año desde la fecha de entrada en funcionamiento del sistema, excepción hecha del cierre definitivo de la sala.

2.— El cambio de titularidad de una sala de bingo adherida al sistema, supondrá la subrogación en todos los derechos y obligaciones por parte del nuevo titular.

3.— Las salas de bingo que, de acuerdo con lo dispuesto en el primer párrafo de esta Disposición, por cualquier circunstancia, opten por renunciar o apartarse del sistema, o no soliciten su inclusión en el plazo previsto en la Disposición Final Segunda de esta Orden, no podrán solicitar su adhesión al bingo acumulado interconectado hasta transcurrido al menos un año desde que ocurriera la circunstancia impeditiva.

*Cuarta.*— Al momento de iniciarse esta modalidad de juego, la cantidad inicial como bingo acumulado interconectado será la que resulte de la suma de los bingos acumulados existentes en ese momento en las salas de bingo adheridas. Si el mismo excediere del límite señalado para el bingo acumulado interconectado el exceso se aplicará a la reserva de éste. Las salas de bingo adheridas comunicarán conjuntamente a la Dirección de Juego y Espectáculos el bingo acumulado interconectado y la reserva resultante de aplicar la regla establecida en el punto anterior.

*Quinta.*— El cierre por cualquier circunstancia de una sala de bingo adherida al sistema del bingo acumulado

ixteak ez du esan nahi inola ere une horretan metatuta-ko zenbatekoaren edo erreserban dagoen kopuruaren gainean jabego eskubiderik edo berreskuratzeko esku-biderik dagoenik.

*Seigarrena.*— Jokatzeko era hori aukera dezaten bingo enpresek ezingo dute jarraitu Herrizaingo sailburuaren 1989ko abenduaren 22ko Aginduz osatutako Herri-zaingo sailburuaren 1988ko otsailaren 19ko Agindua-ren azken xedapenetatik bigarrenean aipatutako bingo metatua ezartzen.

*Zazpigarrena.*— Agindu honen aurka ez doan heinean, indarrean darrai jokatzeko era honi dagokionez bingo metatuari buruzko xedapenetan aurrikusitakoak.

*Zortzigarrena.*— Agindu honek Euskal Herriko Agin-taritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren bihara-munean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 1994ko apirilak 14.

Herrizaingo sailburua,  
JUAN M. ATUTXA MENDIOLA.

## MERKATARITZA, KONTSUMO ETA TURISMO SAILA

1446

145/1994 DEKRETUA, martxoaren 22koa, merkatal-gaiak banatze-alorrean egin behar diren inbertsioei laguntzeko programa arautzen duena.

Merkatalgaiak banatze-alorra aldatze prozesuan aurkitzen da Euskal Herrian, eta inbertsioa da giltzarrieta-ko bar aldaketa prozesu horri egokitzeko garaian.

Ekonomia, bestalde, kizkurtuta aurkitzen denez, ezkorra da bere eragina inbertsioak egiteko politika garatzeko erabakiak hartu behar direnean, batez ere neurri txikiko merkataritzako enpresetan. Beraz, premia-premia-egituratu beharra, baita laguntzok lortzeko beharrezko diren baldintzak eta betebeharrak ere.

Ildo horretatik, eduki ditugun baliabideei ahal denik eta emaitzarik onena atera behar zaie, beti ere urriak izanik, inbertsiorako laguntzak eta bultzagarriak suspertzerakoan Sail honen iharduerak nahitanahiez mugaruta gelditzen baitira.

Aipatutakoez gain, beharrezkoa da, ordea, inbertsio-rako bultzagarri zuzenen politika pausoz pauso beste bide batzuetara eramatea, enpresak bere osotasunean hobetzeko beste tresna batzuk garatu eta sortuko dituzten politikak eginez, zehazki, gure Elkarteko merkata-rizaren lehiakortasun orokorra hobetzeko izan dadin.

interconectado no supondrá en ningún caso derecho de propiedad o de reembolso del remanente que en ese momento existiere en concepto de acumulado o de reserva.

*Sexta.*— Las empresas de bingo que opten por esta modalidad de juego y estén autorizadas para ello no podrán seguir desarrollando el bingo acumulado a que se refiere la Disposición Final Segunda de la Orden de 19 de febrero de 1988, complementada por la de 22 de diciembre de 1989, ambas del Consejero de Interior.

*Séptima.*— En tanto no se oponga a la presente Orden permanece vigente para la práctica de ésta modalidad de juego lo previsto en las disposiciones para el Bingo Acumulado.

*Octava.*— La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de abril de 1994.

El Consejero de Interior,  
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

## DEPARTAMENTO DE COMERCIO, CONSUMO Y TURISMO

1446

DECRETO 145/1994, de 22 de marzo, por el que se regula el programa de Apoyo a la Inversión en el Sector de Distribución Comercial.

La distribución comercial en el País Vasco se encuentra en un proceso de transformación donde la inversión constituye uno de los elementos clave para adecuarse a dicho proceso de cambio.

La situación contractiva en la que se encuentra la economía contribuye negativamente a la decisión de desarrollar una política inversora, en especial en aquellas empresas comerciales de menor dimensión. Todo ello requiere la necesidad de efectuar una reestructuración de la normativa reguladora de las ayudas, así como de las condiciones y requisitos necesarios para poder acceder a las mismas.

En dicho sentido hay que resaltar la necesidad de maximizar los recursos disponibles siempre escasos, que necesariamente limitan las actuaciones de este Departamento en materia de ayudas e incentivos a la inversión.

Además de lo señalado, es necesario reconducir, paulativamente, la política de incentivos directos a la inversión por una política dirigida al desarrollo e implantación de otros instrumentos de mejora integral de las empresas, que conduzcan a una mejora de la competitividad general del comercio de nuestra Comunidad.